

7. Buletina

2012ko ABENDUA

LAN OSASUN ALORREKO BULETINA

AURKIBIDEA:

- 1. 225/2012 DEKRETUAREN PUBLIKAZIOA, EAEKO PREBENTZIO DELEGATUEN ERREGISTROARI BURUZKOA**
- 2. NAFARROAN DATUAK APAINZKEKO INTERESA**
- 3. ARRISKU PSIKOSOZIALAK, EGITEKE DAGOEN IKASGAIA**
- 4. AZTERKETA MEDIKUAK EGITEKO OSASUN UNITATE MUGIKORRAK**
- 5. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO ABENDUA**

7. Buletina

2012ko abendua

1. 225/2012 DEKRETUAREN PUBLIKAZIOA, EAEKO PREBENTZIO DELEGATUEN ERREGISTROARI BURUZKOA

Azaroaren 26ko, 225/2012 Dekretua, Euskal Autonomi Erkidegoko prebentzio delegatuen erregistroari buruzkoa, elkarrizketa sozialeko mahaiaren ekimenez martxan jarri da, beharrezkoa ulertzen delako “ *EAEn, Laneko Arriskuak Prebenitzeari Legeko aurreikuspena noraino betetzen diren jakitea, batez ere, laneko arriskuak prebenitzeko ordezkarien preskakuntzari dagokionez. Bestalde, arautu egiten dira bai inskribatzeko prozedura, eta bai inskribitzen diren datuen tratamendua eta publikotasuna ere.*”

Dekretua orain urtebete aurkeztutako zirriborroaren berdina da. ELAk audientzi publikoko epean aurkeztu zituen alegazio, zuzenketa eta ekarpenen artean batere ez dira kontutan izan.

Erregistro bat sortzeko beharra nahitaezkoa ulertzen badugu ere, aurkeztutako proiektuak gure ustez huts eta gabezi nabarmenak ditu, besteak beste:

1,- Nahiz eta araua argia izan delegatuen inguruko formakuntzaren datuak erresgitzeko beharraren ganean, erregistroaren garapenean ez da ezer zehazten honen baitan agertu beharreko informazioari buruz, beraz, zer nolako formakuntzataz ari gara? Zer eta nola inskribatzen da? Zer bermekin?

2.- Dekretuak delegatu bakarreko enpresetan, ETEak, inskripzioa egiteko betebeharra ezartzen du. Honek sistemaren aldaketa suposatzen du, orainarte izendapena eta inskripzioa modu automatikoan egiten baitzen.

3.- Erregistratzeko modua oztopatu egiten da. Eredua zegoena baino konplexuagoa da, garrantzirik gabeko eta beharrezkoak ez diren datuak eskatzen ditu, batzuk pertsonalak eta erreserbatuak gainera. Zailtasunek erregistro osatugabe eta zehatzgabe batera eramango gaituzte.

Aipatutakoaz gain, gaitzestu ELAk erregistroa sortzeko prozesuan parte hartzeko aukerarik eduki ez izana.

Dekretua, datorren otsailaren 9an, hau da publikazio datatik hiru hilabetetara, indarrean sartuko da. Hala ere, jakin badakigu, erregistroaren garapenerako beharrezkoak diren prozedimendu administrazioak oraindik ez direla martxan jarri, beraz aipatutako dataren ondoren prozedura horiek ezarri arte, egungo sistemarekin funtzionatzen jarraitu behar dugu.

2. NAFARROAN DATUAK APAINTZEKO INTERESA

Pasadan azaroaren 9an, Osasun publikoko eta Lan osasuneko Nafar Institutuak 2012ko bigarren hiruhilabeteko ezbehar-kopuruen datuen inguruko txostena ezagutzera eman zuen. Beraien esanetan eta notizia delarik “ ezbehar kopuruen indizea urtearen lehenengo sei hilabetetan % 23, 3an jeitsi da”. Badirudi, aurreko urteekin datua aldaratzeak eta ondorioz ezbeharren kopurua jeistek, Nafarroan egoerak hobera egin duenaren isla dela. Nork sinetsi dezake baieztapen hori egungo abagune ekonomikoa, krisia eta horrek biztanleri okupatuan edo jarduera tasan duen eragina kontutan hartu gabe? Eta zer esan langabezi tasari buruz? Logikoa denez, biztaleri okupatuak behera egiten badu, ezbehar kopuruak ere behera egingo du.

Txostenaren arabera, eraikuntza da ezbehar kopuruan jeitsierarik handiena izan duen sektorea (%30,4). Kasualitatea, lan suntsiketarik handiena eman den sektorea!. Gertatutako lan istripuetatik, 3 hilgarriak izan dira (1 in itinerea), 25 larriak eta 3.599 arinak.

ELAtik salatu nahi dugu Nafar gobernuak datuen inguruan egiten duen irakurketa partzial eta interesatu hau. Are gehiago Nafar Gobernuaren lan osasun politikak ezagututa, lan istripuak sahiestu baino estali nahi dituztenean ez da prebentzio legea ez betetzearen jarraipenik egiten, ezta zigortzen ere. Ez dago ezer kontratazioan iruzurrari buruz, enpresak horrela oso lasai daudelarik.

Langileen lan osasun eta lan segurtasuna 31/1995 Legeak onartzen duen eskubidea eta

enpresari ezartzen zaion betebeharra bada ere, legea indarrean sartu eta hamazazpi urte beranduago oraindik ere Hego Euskal Herrian betetzen ez den araua da enpresen onurarako eta langileen kalterako, noski.

Laburbilduz, ELAtik salatu behar dugu administrazio publikoek datuen inguruan egiten duen erabilpena, beraien politikak babestu eta goraiatzeko asmo huts eta zitalarekin. Langileok jakin badakigu zein den enpresetan eta gobernuan gai honi ematen zaion garrantzia, horregatik horrelakoak salatzen jarraituko dugu, gure osasun, gure segurtasun eta bizitzaren defentsa lehentasuna delako.

3. ARRISKU PSIKOSOSIALAK, EGITEKE DAGOEN IKASGAIA

Bai administrazioetan eta bai enpresetan ere, arrisku psikosozialei ematen zaien tratamendua oso eskasa da. Kasurik hoberenean, ebaluaketa psikosozial bat egitera mugatzen da. Gehienetan modu oso formalean egiten da, konplitzeko besterik ez. Batzutan enpresek egun oso modan dauden zertifikazioak lortzeko egiten dute (ISO, OSHAS...) eta bestetan, lan agintaritzak eskaturik, langileen osasunaren kontrako kasuren bat salatu delako.

Eskakizun hau betearazteko, kasu gutxi batzuk salbuespen, barne edo kanpo prebentzio zerbitzu gehienek, ebaluaketa hauek oso modu isolatuan egiten dituzte. Dauden metodo ezberdinak erabiliz, lantoki bakoitzean dagoen errealitatea kontutan hartu barik edo arrisku ezberdinek, antolakuntza faktoreak batez ere, sortarazten dituzten faktoreak, prebentzio plangintzan integratu barik egiten dituzte.

Egun bizi dugun krisi egoeran, lan arrisku faktore guztiak, hauen artean arrisku psikosozialak ere, areagotu egiten direla argi dago. Ostera, lantokietan giro on bat lortzeko behar diren babes faktoreak gero eta gehiago murrizten dira. Patronalak prebentzio arloan egindako ekintza guztiak gastu bezala ulertzen ditu, sekulan ez inbertsio moduan.

Bigarren maila batera baztertzeko asmo hau existitzen delako, ikuspuntu sindikaletik oso presente izan behar ditugu antolaketa faktoreak, hots, ziurtasun-gabezia lanean, prekarietatea, lanaren eskakizunak etabar. Izan ere, langileen osasun eta segurtasunean eragina duten faktoreak dira eta ondorioz, identifikatu eta behar bezala tratatu behar ditugu.

Gure argitalpenetan askotan esaten dugun bezela, lehenengo eta behin ebaluaketa psikosoziala eskatu behar dugu gure enpresetan, legeak azpimarratzen duen moduan. Baina enpresan

existitzen diren arazo errealak islatzeko intentzioarekin, ez legeak ezartzen duen irizpide bat besterik ez delako. Legea betearazteko ebaluaketa edozein modutara egiteak ez du ezertarako balio. Arrisku guztiak beren sorreratik kontrolatuak izan behar direla abiapuntutzat izanik, etengabeko prozedura baten bitartez langileon osasuna kaltetu ahal duten arriskuak bilatu eta ezagutu behar dira.

Laburbilduz, prebentzioa beste ekintza batzuen aurretik kokatu behar dugu eta enpresek prebentzio plangintza bere osotasunean eraman dezaten ziurtatu. Plangintza honetan faktore psikosozialak barneratu behar ditugu, langileon osasuna modu negatiboan eragin dezaketen antolakuntza faktoreak aztertuz, eragin negatibo hauek ekiditzeko ekintza konkretuak planteatuz, estresa, laneko-jazarpena, depresio-arazoak etabar, errotik desagertu daitezten.

4. AZTERKETA MEDIKUAK EGITEKO OSASUN UNITATE MUGIKORRAK

Langile askok bizi izan dute nozbait azterketa medikuak egiteko orduan, tokidesegokietan egin beharra, adibidez, enpresetako aldageletan edo prebentzio zerbitzuek bidaltzen dituzten unitate mugikorretan (autobusak, furgonetak...). Egiten diren azterketen artean, odol erauzketak eta audiometriak arruntenen artean daude.

Euskal Autonomi Erkidegoko prebentzio zerbitzuen osasun jarduerak jorratzen duen maiatzak 16ko 78/2000 Dekretuak, bere 5.artikuluak, prebentzio zerbitzuek osasun arloan bete beharreko minimoak aipatzen ditu. Hauek, Dekretu honen I eta II.en gehigarriak gutxienez bete behar dituzte, bai giza-baliabidei baita materiale eta iristeko erraztasunari buruz ere. Azken puntu honi dagokionez, gehigarriak honako hau azpimarratzen du: enpresa, prebentzio zerbitzuaren instalazioetatik oso urrun baldin badago eta kasu hontan bakarrik, osasun unitate mugikorak erabili daitezke azterketa medikuak egiteko. Baina prebentzio zerbitzuek salbuespen hau normatzat hartuta, osasun unitate mugikor hauek kasu gehienetan erabiltzen ari ziren, alde batetik arinago egiten dituztelako eta bestaldetik, enpresarentzat probetxuzkoa delako. Langileak izan ezik, beste guztiak irabazten dute, egoera hauetan egindako azterketa medikuetako emaitzak ez baitute ezertarako balio.

ELA-k behin eta berriz salatu du azterketa medikuak instalazio egokietan egin behar direla, baliabide egokiekin. Nafarroako Lan Osasun Institutoak ere modu berean ulertzen du. Nafarroako prebentzio zerbitzuek erabilitako praktika txarrak direla eta, Nafar Institutoak mezu argi ta garbia

bidali die: azterketa medikoak toki egoki eta baimenduetan egin behar dira. Debekatuta dago enpresako edozein tokitan edo osasun unitate mugikorretan egitea. Azken hauek kasu berezietan bakarrik erabiliko dira, enpresak prebentzio zerbitzuko lokaletik oso urruti gelditzen diren kasuetan, beti ere dagokion erakundea aurretik informatuz.

5. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO URTARRILA - ABENDUA

HEH	LAN-ISTRIPUAK
BIZKAIA	19
GIPUZKOA	13
ARABA	10
NAFARROA	7
GUZTIRA	49

*Datuak abenduaren 18ra